

Agustina Askasibar Lauzirika

*Eibar,
Gipuzkoa
(1929-2018)*

Aurkibidea

Biografia



Agustina Askasibar Lauzirika Eibarren jaio zen, 1929ko abuztuaren 28an. Isasi kaleko 10. zenbakian jaio eta bizi izan zen 2000. urtera bitartean. Bertan izan zuten "ultramarinos" denda. "Maria Txaltxaneko" izenez ezagutzen zuten denda. Ahizpa Apoloniarekin egin zuen lan bertan jubilatuta artean.

Zintak

EIB-084

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasketa, Ane
- **Data:** 2009-08-22
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Rios, Paula

Pasarteak

1. Isasi ingurua; harraska erreka, korta eta etxeak

- **Erref:** EIB-084/003
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:07:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

<p>Isasi 10 zenbakian, atze aldean, harraska bat zegoen eta "kunbo" bat ere bazegoen bertan (upel moduko zerbait). Gerra denboran, gordeleku moduan erabili zen. Ego Gainen zegoen "kunboa" eta hegazkinak zetozenean bertan ezkutatzen ziren. Erreka gainean eraiki zen hotela gerora. Isasi 14 eta 16 zenbakien azpian korta batzuk zeuden. Zaldiak eta gurdizainak egoten ziren. "Katillunekoak" zeukaten korta. Gurdizainen ofizioa aipatzen du.</p>

Transkripzioa

-Zuen etxe atzekaldian, Arrate hotela daon lekuan, zer zeuan han?
-Han eguan kunbo bat. Gure etxian ta beste etxe batian, guria zan hamarra ta bestian, hamabixan, tartian euan eskillarak. Ta handik juaten zan, han euan labadero bat, ta andrak ur hotzakin erropak garbitzera, harrixan gaiñian, ta hantxe danak abesten ibiltzen ziazan, umore onakin, pertsona zintzua baiña umore onakin. Beti kantu batian.
-Ta gero euan kunbo bat. Handik kunbotik, ta gero gerra denporan, [ha kunbua ta ekan pues] zera refujixo moduan. Han gerra epokan, bonbardeuak, han, Ego gain, bota eban harrixa, edo... bonbia. Ta han egon ziazan herido asko. Ta danok abioiak etortzen ziazan... "Ene abioiak!.. Hiru datoz!" ta korrikan, ta hantxe ezkutatzen giñazan.
-Nun zeuan kunbo hori? Hotel Arraten inguruan edo nun?
-Hotel Arraten azpitan, azpitan euan. Klaro, ez zeuan hotelikan. Orduan euan kunbua, ta gero erreka gaiñian dao einda hotela.
-Eta ez zeuan hor korta bat edo holako zeozer?
-Harutzago, hamalauan ta hamaseixan, azpitan, euan korta batzuek. Ta han eoten ziazan zaldixak. Eta gero karreteruak eken han... kaballuekin ta karruekin urtetzen eben. Han euan zera... karreteruak han eken... zerak, zaldixak.
-Zeinenak?
-Katillunekuak. Harek ekan, Katillunekuak han eken kortia. Katillu nausixak, oin bizi dirazen gurasuak, aitta, harek ibiltzen zan karretero.
-Zein zan karreteruan ofiziua? Zer eitten eben?

-Materixalak eruan ta... biharra. Oin furgonetak eitten zana orduan eitten eben karruekin.
- Lehen esan dozu labaderuan kantuan ibiltzen ziala...
- Bai, oso kantuak.
- Andrak bakarrik?
- Andrak, bai.

2. Harraskan kantuan

- **Erref:** EIB-084/004
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:08:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Harraskara emakumezkoak joaten ziren, eguerdi partean. Kantuan egoten ziren, umore onez.

3. Dendan denetik saldu

- **Erref:** EIB-084/006
- **Iraupena:** 0:04:05. **Hasi:** 00:09:15. **Bukatu:** 00:13:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Agustinak dendan egin zuen lan txikitatik erretiratu zen arte. Denda ederra zela eta denetik zutela kontatzen du. Nola egiten zuten lan eta nolako pisu eta makinatxoak zituzten aipatzen du. Janari guztia zakuetan etortzen zen. Jakiak zituzten, arropak, oinetakoak, xaboiak... Isasi kalean denda asko zeuden, gehienak jateko dendak.</p>

4. Umetan dendako lanetan laguntzen

- **Erref:** EIB-084/008
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:16:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Umetan, udaletxera joan zen eskolara eta helduagoa izan zenean partikularrera, Jesusa Arregirengana; etorkizunean bulegoren batean lan egiteko asmotan. Baina dendan egin zuen lan. Margolaren sukurtsal moduan ere egiten zuten lan dendan. Jendearen enkarguak Margolara eramaten zituzten eta bueltan ekarri, askotan etxeko atera arte.

5. Umetako jolasak kalean

- **Erref:** EIB-084/009
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:16:23. **Bukatu:** 00:19:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

<p>Udaletxeko eskola nolakoa zen aipatzen du. Gela handiak ziren, antzinako egurrezko mahaia... Sartzeraoan "¡Viva Franco!" esaten zuten eta zerrenda pasatzen zutenean berriz "¡Viva Jesus!" erantzun. Neskak eta mutilak banatuta egoten ziren eskolan. Orduko jolasak. Uda partean, zezen plazara joaten ziren bertan "parraparra" (txirrista) zegoelako. Bertako buztina hartu eta Isasi kalean zegoen petrilean jolasten zuten. Baserritarren astoen gainean jartzen ziren eta Isasin gora eta behera ibiltzen ziren jolasean.</p>

Transkripzioa

- Eskolan esan dozu aiuntamentuan ibili ziñala, ez?
- Bai [lehengo] aiuntamentuan.
- Zelakua zan eskolia, akordatzen zara?
- Bai, gela haundixak ziazen. Ba... genkaun honek, e... taburetiak mahaixakin; ta gero jasotzen gendun ta hantxe gordetzen gendun gure gauzak. Eta sartu...tzen giñazen, ta sartzeraoan besua jaso ta "Viva Franco" esaten gendun ta jarri. Ta, bueno, ba, listia: "Fulana de tal" ta zutintzen gendun ta "Viva Jesus" esaten gendun. Ta holantxek.
- Neska ta mutil edo neskak?
- Ez, neskak, neskak. Oin ezta... Oingo moduan ez; mutillak aparte ta neskak. Ta gero eukitzen gendun [...] rekreua. Goiz erdixan urtetzen gendun rekreora ta jolasten gendun, ba, sokara, txingor-gain edo... zelan zan hori...? Bueno... zelan da hori...?
- Tabetan?
- Tabet...akin, bai. Ta bestelan, bueno, horixe. Ta gabetan udan juaten giñazen esto... korrida plazan euan parraparra, ta hartzen gendun buztiña ta gero gure etxiak ekan petril bat eta han harekin buztiñakin eitten gendun, ba, jolastu.
- Petrillian?
- Petrillian.
- Isasin zeuan petrilla?
- Petrilla euan han, petrilla. Ta neguan danok esto... bai amak-eta urtetzen gendun ta hantxe kamiñuan jolasten gendun. Kotxerik ez zebizen. Astuak be kaletikan. Ta gurdixak, ta askotan gurdi gaiñian jarri, Eskola Armerixaraiño juan, han bajatu... zera. Ta beste batzuetan, ba, petrillian lotzen eben astuak baserrittarrak ta han asto gaiñian zestuak ekazen astuak ta han zestuan sartu ta ze ilusiño! Ta asto gaiñian juan, ta gero Eskola Armerixan euan petril bat eta berak baserrittarrak hartzen eskun, laga han petrillian ta berriz etxeraiñok edo petrillerañok.

6. Isasitik hasi eta Santa Ines baserrira

- **Erref:** EIB-084/012

- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:21:28. **Bukatu:** 00:25:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Isasi kalean San Antonio komentua zegoen, gaur egungo Eroski inguruan. Eliza ederra zuen komentuak. Santa Inesen, berriz, izen bereko baserri bat zegoen eta esne freskoa ematen zieten bertaratzen zirenean. Gorago Kaskarrengoko baserria zegoen. Baserri aberatsa zen hura. Jende dotorea bizi zen bertan. Astelena pilotalekua gaur egungoa bezalakoa zen. Abontza baserria ere aipatzen du. Giputxaneko pilotalekuan jatetxea zegoen eta San Juan Egunean izozkia jatera joaten ziren. Markeskua jauregia ere aipagai du.

7. Gerra sasoian Mallabira ihesi

- **Erref:** EIB-084/016
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:27:57. **Bukatu:** 00:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerra sasoian, Mallabira ihes egin behar izan zuten. Otaolaerdikoa baserrikoek eraman zizkieten altzariak. Aita eta anaia Jose Maria etxea zaintzen gelditu ziren Eibarren. Anaia zauritu zuten eta orduan Mallabira joan ziren bai aita bai anaia. Ez zuela goserik pasa dio eta errazionamendua nola bizi zuten kontatzen du. Dendan gelditutakoekin trukeak egiten zituzten.

8. Eibar erreta

- **Erref:** EIB-084/019
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:32:43. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra bukatzerakoan Eibarrera bueltatzerakoan dena erreta aurkitu zuten, Isasi inguruan beraien etxea geratu zen tente. Plaza merkatuan zegoen "Convento de Las Agustinak", Barrenkaleko eliza... dena ere erre zuten.

9. Eskolako irteerak. Untzagan dantzan

- **Erref:** EIB-084/021
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:34:48. **Bukatu:** 00:36:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Eskolatik Elgetara eta San Asentsiora egiten zituzten irteerak, oinez joaten ziren. Untzaga plazan egiten zuten dantza gaztetan, gazteenak alde batean eta nagusiagoak bestean. Plaza erdian kiosko bat zegoen musikarientzat. Eibarko bandak jotzen zuen musika. Mutilak ibiltzen ziren neskak dantzarako gonbidatzen, sarritan kalabazak ere ematen zituzten.</p>

10. Gaztetako jolasak

- **Erref:** EIB-084/022
- **Iraupena:** 0:05:12. **Hasi:** 00:36:48. **Bukatu:** 00:42:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

Laburpena:

<p>Gaztetako jolasak aipatzen ditu: sokasaltoan, txingor gainean, tabetan, harrapaketan, "aceitero vinagrero"... Hainbat jolas aipatzen ditu, batzuk kantu eta guzti.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-30

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com